

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak. 2024ko azaroa

2024ko azaroan gaudiak % 8,3 gehitu dira Euskal AEko hotel-establezimenduetan eta sarrerak % 3,7

Eguneko batez besteko tarifa (ADR) 93,50 eurora iritsi da, aurreko urtean baino % 8,7 gehiago

Eustaten datuen arabera, **2024ko azaroan**, Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak % 3,7 gehitu dira urte artean, eta gaudiak % 8,3. 274.751 sarrerek 539.629 gaudi eragin dituzte.

Azaroan ikusitako sarreren % 35,2 eta gaudien % 36,7 atzeritarrek egin dituzte, aurreko urteko hilabete beraren aldean % 5,0 eta % 8,2 igo ondoren, hurrenez hurren.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gaudiak eta batez besteko egonaldia. Azaroa 2024

	Sarrerak		Gaudiak		Batez-besteko egonaldia	
	2024/11	m/m-12 (%)	2024/11	m/m-12 (%)	2024/11	2023/11
EUSKAL AE	274.751	3,7	539.629	8,3	1,96	1,88
Estatukoak	178.027	2,9	341.547	8,5	1,92	1,82
Atzeritarrak	96.724	5,0	198.082	8,2	2,05	1,99
Araba/Álava	37.780	2,5	81.381	6,7	2,15	2,07
Estatukoak	29.527	2,5	62.074	9,2	2,10	1,97
Atzeritarrak	8.253	2,7	19.307	-0,8	2,34	2,42
Vitoria-Gasteiz	28.752	-0,2	65.987	3,5	2,30	2,21
Bizkaia	123.551	-1,0	235.502	5,4	1,91	1,79
Estatukoak	81.972	-0,5	148.626	5,6	1,81	1,71
Atzeritarrak	41.579	-1,9	86.876	5,2	2,09	1,95
Bilbao	85.509	-1,3	166.649	7,1	1,95	1,80
Gipuzkoa	113.420	9,6	222.746	12,3	1,96	1,92
Estatukoak	66.528	7,8	130.847	11,6	1,97	1,90
Atzeritarrak	46.892	12,4	91.899	13,3	1,96	1,94
Donostia / San Sebastian	76.883	9,3	150.747	16,0	1,96	1,85

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2024ko Abenduaren 20a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Araban 37.780 sarrera eta 81.381 gaudi erregistratu dira, aurreko urteko azaroan baino % 2,5 eta % 6,7 gehiago. Gipuzkoan sarrerak % 9,6 gehitu dira eta gaudiak % 12,3; guztira 113.420 sarrera eta 222.746 gaudi. Bizkaian 123.551 sarrera erregistratu dira 2024ko azaroan, 2023ko azaroan baino % 1,0 gutxiago, 235.502 gaudi, aurreko urteko hilabete berean baino % 5,4 gehiago.

Hiriburuen arabera, sarreren kopuruak % 9,3 egin du gora Donostian, Bilbon % 1,3 egin du behera eta Gasteizen % 0,2, behera baita ere. Hala ere, gaudiek gora egin dute hiru hiriburuetan: % 16,0 Donostian, % 7,1 Bilbon eta % 3,5 Gasteizen.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako batez besteko egonaldia, 2024ko azaroan, 1,96 egunekoa izan da, aurreko urteko hil bereko 1,88 egunak baino zertxobait handiagoa. Batez besteko egonaldia bidaiariek gaua igarotzen duten establezimendu bakoitzean batez beste ematen duten egun kopuruari dagokio, eta ez Euskal AEn egiten duten egonaldiaren guztizko iraupenari.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. Azaroa 2024

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazen arabera		gelaka		ADR (eurotan)		RevPAR (eurotan)	
	2024/11	p.p. *	2024/11	p.p. *	2024/11	m/m-12 (%)	2024/11	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	49,8	1,9	62,3	2,3	93,50	8,7	58,22	12,9
Araba/Álava	50,3	1,6	67,4	3,2	80,65	4,7	54,37	10,0
Vitoria-Gasteiz	51,6	0,0	72,1	2,3	69,71	5,1	50,23	8,5
Bizkaia	48,8	1,9	63,2	3,6	96,38	9,5	60,93	16,1
Bilbao	54,4	2,6	70,0	3,7	103,44	10,5	72,44	16,5
Gipuzkoa	50,7	2,0	59,4	0,6	95,22	9,1	56,58	10,2
Donostia / San Sebastian	55,9	3,4	64,0	1,5	108,01	9,4	69,11	12,0

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabeteaz izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2024ko Abenduaren 20a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal Autonomia Erkidego osoan, okupazio-maila % 49,8koa izan da azaroan, plazen arabera neurtuta, 2023ko azaroan ikusitakoa baino ehuneko 1,9 puntu handiagoa, eta % 62,3koa logelen arabera neurtuta, duela urtebete lortutakoa baino 2,3 puntu handiagoa.

ADR edo eguneko batez besteko tarifa (logela bakarreko bainugela duen logela bikoitzari aplikatuta) 93,50 eurokoa izan da 2024ko azaroan Euskal AEn, hau da, % 8,7ko igoera aurreko urteko azaroarekin alderatuta. ADRa 95,22 eurotan kokatu da Gipuzkoan, 96,38 eurotan Bizkaian eta 80,65 eurotan Araban. Hiriburuka, balioak lurralde historikokoak baino pixka bat handiagoak izan dira Gipuzkoan eta Bizkaian; izan ere, ADRa 108,01 eurora iritsi da Donostian eta 103,44 eurora Bilbon. Gasteizen, aldiz, txikiagoa izan da eta 69,71 eurotan kokatu da.

RevPar, edo gela erabilgarriko batez besteko diru-sarrerak, Euskal AEko hotel-establezimenduetan 58,22 eurokoa izan da 2024ko azaroan, aurreko urteko hil berean baino % 12,9 handiagoa.

Informazio-oharra

Hotelen ETRaren 2024ko azaroko erantzun-tasa % **90,8** izan da. Eustatek eskerrak eman dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik.

Serie estatistiko osoa kontsulta dezakezu, 2011ko urtariletik hona, esteka honetan:

[Euskal AEko turismoko datu-esploratzailea. Hotel-establezimenduak](#)

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tf: 945 01 75 62